

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA		EUSKARA ETA KULTURA	
IRAUPENA		Ordubete	EGUNA 2017/06/07
GAIA	Udaberri kulturalaren balorazioa, Makilariko argazkien jolasaren zozketa eta UEMA	DEIALDIA	19:00etan
PARTE HARTZAILEAK			
Ane Lapizondo	Marian Bidegain	Jokin Matxinandiarena	Ezin etorria adierazi dute:
Amaia Larrañaga	Iñigo Igartzabal	Eresti Oiarbide	Ane Miren Aizpuru
Arantzazu Baztarrika	Jokin Murua		
Aratz Igartzabal	Xabat Goikoetxea		
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK		
UDABERRI KULTURALA	<p>- Zuhaitz eguna eguna: azken urteetan bezala, ondo!</p> <p>- Kontu eta kantu haurrentzako ikuskizuna: oso ume gutxi bertaratu ziren; gainera, batzuk lehenago irten ziren. Azkenerako pare bat ume eta lau guraso bakarrik gelditu ziren. Dantza entsaioa zegoen zapatu arrotsaldean jarri genuen; beraz, ez dakigu jende horren gutxi gerturatzearen arrazoia zein izan daitekeen: eguna, ordua, formatua... Bertan izan zirenek horiek ez zirela izan arrazoiak esan dute. Garbi dago ez zuela arrakastarik izan. Hurrengoan beste zerbait/beste modu batera egin beharko dugu umeentzako ekintzaren bat antolatzean.</p> <p>- Kirolariekin mahai-ingurua: dagoeneko hiru aldiz egin da horrelako mahai-ingurua kirolariekin eta aurtengoa ere gainontzeko urteetan bezala arrakastatsua izan da; datorren urtean ere egiteko modukoa. Ostiral arratsaldean izanda, kirolari ezagunekin eta ez hain ezagunekin ere, jendea gustura hurbiltzen da. Datorren urtean gure artean nahiko genituzkeen batzuk: Abel Barriola, Txus Jaio...</p> <p>- Makrobiotika ikastaroa oso ondo! Asteazkenean izanda jendea inguratu zen; hala ere, sukaldaritza mota ezberdina/ezezaguna izanda, urtero inguratzen den jendea ez zen etorri. Datorren urterako bertako/inguruko jatetxeren bateko sukaldariren batekin hitz egin daiteke.</p> <p>- Katainen ibilerak: ondo! Mendi ibilerak kontatu zituen bere espediziokide izan zen batekin. Herritar bat horrela ibiltza, ondo dago berari aukera hori ematea; hala ere, beraz gain, kanpoko norbait etortzea ondo legoke (Marron, Ifurrategi...)</p> <p>- Kapulana bat zintzilik – Miren Amuriza - : jende piloia izan zen. Jai arratsalde baterako oso egokia.</p> <p>- Feli Zubia: jende piloia, urtero bezala. Ordu aldaketa egin zen; hala ere, jendetza. Datorren urtean Leharrei mendi lasterketaren bueltan mendi karrerekin/kirolariekin lotutako zerbait egin daiteke. Leharreiko antolatzaileekin, eta, noski, Felixekin berarekin, hitz egin behar ea zer iruditzen zaien.</p>		

	<p>- Korrikako afaria eta herritarren bertso-saioa: herritarren bertso-saiorik ez zen egin, baina aurrerago egiteko asmoa daukate. Horren ordez Gipuzkoako Herri-arteko Txapelketaren kanporaketa bateko bertso-saioa jokatu zen Osinalde elkartearen. Giro ederra izan zen eta Korrikan ere jende dezente hartu zuen parte bai altzibar parean eta baita Aztirin ere.</p> <p>- Igelak filma: helduentzako filmeek ez dute arrakasta handirik izaten, baina jai arratsalde batean film nahiko berria jarriz gero, jendea gerturatzen da. Honetan, esaterako, jende dezente bertaratu zen.</p> <p>-Hartu-eman ikastaroa: elizako erlojua (Eusebio Igartzabal): ondo! Nahikoa jende elkartu zen, gehiago izanda lekurik ere ez zen izango. Horrelako ikastaroak egiten jarraitzea merezi du aurrerantzean ere, oso abersgarriak baitira.</p> <p>- Erdibana antzezlan: ederkil! Oso saio umoretsua izan zen eta jendea zorutzen atera zen bertatik. Azkenaldian jarri ditugun antzezlanetan sarrera konbrtatu izan dugu, baina aurrez ez dugu horren aipamenik egin; hurrengorako, kartelean edo propaganda egin behar dugunean, sarrera korbatuko dugula jartzea komeni da.</p>
<p>MAKILARIKO ARGAZKIEN JOLASEKO ZOKKETA</p>	<p>Argazkien jolaseko partaide guztiek asmatu dute, guztira 10 lagunek. Maiatzaren 31n bukatu zen epea eta batzordean bertan egin genuen zokketa. Sariaren irabazlea Gema Jauregi izan da; hortaz, datorren urtean bera arduratuko da Makilariko argazkien jolaseko argazkiak ateratzeaz.</p> <p>Lehiaketa/jolas honetan jende gutxik parte hartzen duela eta, datorren urterako saria bi lagunentzako afaria izan beharrean, Ostatun bertan bertako produktuekin (Bertatik Bertara, Gabiriako baserritasrren prroduktuak..) saski bat osatzea proposatu da. Horrez gain, lehiaketan parte hartzeko paperak pronto jarriz gero (etxetik ekarri beharrean), jendeak errazago izango du parte hartzea.</p>
<p>UEMA</p>	<p>Ofizialki, bihar, ekainaren 10ean sartuko da Gabiria UEMAn. Hori dela eta, herrian bertan zerbait egitea pentsatu dugu San Joan bezpera egunerako. Datorren astean-edo emango dizuegu informazio gehiago.</p> <p>UEMAko hurrengo bilera irailaren 13an izango da, arratsaldeko 19:00etan.</p>

HURRENGO BATZORDEA

irailaren 20an, 19:00etan